

DIRU ITURRIAK

Gure enpresak izango duen diru-sarreretako bat hurrei eta haien familiei eskeintzen dizkiegun zerbitzuak dira. Horrez gain, diru-sarrerarik nagusiena saio bakoitzeko familiek ordainduko digutena izango da. Gure enpresak bi motatako diru-sarrerak izango ditu: Ordainketa bakarreko diru-sarrerak eta ordainketaerrepikariak.

Ordainketa bakarreko diru-sarrerei dagokienez, jasoko ditugun irabaziak hauek biak izango dira: eusko jaurlaritzak edota gobernua emango dizkiguten diru-laguntzak. Ordainketa errepikariari dagokionez, familiak ordainduko diguten kantitatea saio bakoitzagatik izango da. Bertara joaten diren haurren familiek saio guztietan kuota bat ordaindu beharko dute gure enpresak eskainitako zerbitzuak beraien hurrek jaso ahal izateko.

Gure diru-sarrerak prezio finkoetan oinarrituko dira. Familiek hilero edo momentuan ordaintzeko aukera izango dute eta txartela, bizum edo diruarekin ordaintzeko aukera ere. Bakoitzak kostu desberdin bat izango du. Adimen emozionala lantzeko saioak taldeka, bakarka edo familian egin ahalko dira. Saio bakoitza 40 eurokoa izango da. Hala ere, bigarren haur bat ekartzen dituzten familiek, familia ugaria dutenek eta langabezia dauzenek, deskontua jasoko dute. Bigarren haurra ekartzen dituztenentzat, saio bakoitzak 35 eurokoak izango dira; familia ugarien kasuan, %20ko deskontua izango dute; langabezia dauden familientzat berriz, %30eko deskontua. Taldeko saioetan, familia ugari naiz langabetuentzat %20koa izango da deskontua.

Hau da, saiorik merkeena taldekakoa izango da eta garestienak saio indibidualak izango dira.

Gure tailerrak egiteko lokala astero astelehenetik barikura arte zabalik egongo da, eta bertan nahi duten haur eta familia guztiak ongi etorriak izango dira. Gure

zerbitzuek haurren adimen emozionala lantzea izango dute helburu eta baita familiek beraien prozesuan laguntzeko prest egotearen helburua ere. Hurrekin emozioen lanketa egitea oso garrantzitsua eta ezinbestekoa da haiek etorkizun on bat izateko.

Ordaindu beharreko kuota gora edo behera egin dezake familia eta haurrak datozen egunen kopuruaren arabera. Haur bakoitzaren gurasoek kuota bat ordaindu beharko dute, baina familia batek haur bat baino gehiago apuntatzen badute, kuotan deskontua jasoko dute. Horrez gain, izan daiteke eskainitako kuota familia askok ezin ordaindu izatea, baina guretzako garrantzitsua da haur eta familia guztiek edo ahalik eta gehienek gure zerbitzuak jasotzeko aukera izatea.

Horregatik, deskontuak eskainiko ditugu behar duten familiei, agian deskontua ez da oso handia izango ezta aldaketa handirik eragin, baina horrela familia gehiagok izango dituzte bertara etortzeko baliabideak. Langabezian baldin badago familiaren bat eta hori demostratzeko papela aurkezten baldin badu, deskontuak jasotzeko aukera izango du.